

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4099

AGINDUA, 2023ko uztailaren 18koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretua egokitzen baita eta jakitera ematen baita zenbateko dirulaguntzak emango zaizkien guztira fruta- eta barazki-ekoizleen elkarteei 2023rako.

Fruta- eta barazki-ekoizleen elkarteentzako laguntzak Merkatu Antolakunde Bateratutik datoz Nekazaritza Politika Bateratuaren esparruan sartuta dagoen fruta eta barazkien sektorean. Egun, bi laguntza mota daude: onartutako ekoizle-elkarteentzako Europako Erkidegoaren laguntzak eta erakunde horientzako estatuaren laguntza osagarriak.

Sektore honetan, Merkatu Antolakunde Bateratuaren Europako Araudia aldatu ostean, Euskal Autonomia Erkidegoan argitara eman zen urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretua, zeinaren bidez arautu baitzen nola garatu eta aplikatu Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema. Dekretu horrek indargabetu eta ordeztu egin du laguntza horien lehenagoko araudia: urriaren 14ko 228/1997 Dekretua eta martxoaren 21eko 56/2000 Dekretua.

Komunitateko araudiak eta urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuak ezartzen dute, modu mugagabea, zer epe dauden ezarrita eskabideak aurkezteko (beranduenera jota, hurrengo urteko otsailaren 15ean; alegia, eskabidea zein urtetarako den, hurrengo urteko egun horretan beranduenera ere). Dena den, dekretu horretako 25.4 artikulua xedatzen du ezen, urtero, agindu bidez aditzera emango dela zenbat laguntza emango zaizkien dagokion urtean, guztira, fruta- eta barazki-ekoizleen elkarteei.

Halaber, urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuak ahalmena ematen dio nekazaritzaren eta arrantzaren alorrean eskumena duen sailburuari behar beste agindu emateko, dekretu hau aplikatzeko behar diren xedapen gehigarriak ezartzeko, eta Europako Erkidegoko erregelamenduetan edo, kasuan kasu, oinarritzko araudi estatalean egiten diren aldaketetara egokitzeko aldaketak egiteko. Dekretu horretan aipatutako erregelamenduak ordeztu direnez, komeni da zenbait erreferentzia egitea.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egokitzapena.

Honako hauek aipatzen dira urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 22. artikuluko 1. zenbakiko a) eta b) letretan: Kontseiluaren 2007ko urriaren 22ko 1234/2007 (EE) Erregelamendua eta Kontseiluaren 2007ko abenduaren 21eko 1580/2007 Erregelamendua, eta ulertu behar da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 Erregelamenduaren 34. eta 35. artikuluei egindako aipamenak direla, haren bidez antolatzen baita nekazaritzako produktuen merkatu-antolakunde bateratua eta baliogabetzen baitira erregelamendu hauek: 922/72 (EEE), 234/79 (EEE), 1037/2001 (EE) eta 1234/2007 (EE).

Bigarrena.– Laguntzak, guztira.

Urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren bidez arautu zen nola garatu eta aplikatu Europako Erki-degoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 2023ko ekitaldian emango diren dirulaguntzek ezin izango dituzte gainditu diru-kopuru hauek:

– 360.000,00 euro Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura ematen den laguntzan.

– 120.000,00 euro FEAGAREN kargura ematen den laguntzan.

Hirugarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu, eta hurrengo egunean hasiko dira epeak.

Laugarrena.– Ondorioak.

Agindu honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 18a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.